

MEDIKUNTZAKO LANPOSTUAREN PROFILA

Eskakizunak

Gutxieneko esperientzia: ez da beharrezkoa

Gutxieneko eskakizunak:

- Medikuntzako Lizentziatura
- Medikuen Elkargo Ofizialeko txartela
- Geriatrian eta Lehen Mailako Arretan izandako esperientzia balioetsiko da

Azalpena

Babesten Taldean, MEDIKU bila gabiltza, egoitzetan eta eguneko zentroetan ditugun profesionalen diziplina anitzeko taldea osatzeko.

Honako hauxe izango dute xede, Babesten Taldeko osasun-koordinatzailearen eta zentroko Zuzendaritzaren menpean:

- Pertsonen osasun-prozesu guztietako laguntza integralean, prebentzioan, balioespenean eta jarraipenean oinarritutako kalitateko osasun-arreta eskaintzea erabiltzaileei, helburua bera pertsonen autonomia eta ongizatea direla kontuan hartuta.

Honako hauexek izango dira haien eginkizunak:

Zentroko antolakuntzari dagokionez:

- Osasun Saila koordinatzea zentroko laguntza-arduradunaren (Erizaintzako ikuskatzailearen) eta Erizaintzako langileen laguntzaz.
- Datuak Osabideko Globalclinicen, Presbiden eta Resiplusen kudeatzea eta erregistratzea.
- Diziplina anitzeko taldearen bileretan parte hartzea.
- BAPren prestaketan parte hartzea.
- Erabiltzaileek eskatuta edota medikuaren erabaki profesionalagatik txosten medikoak egitea. Altako edo kontsultarteko edo mendetasunaren balioespenerako... txosten medikoa prestatzea.
- Sendagaien zentzuzko erabilera sustatzea, sendagaiak kontrolatzea...
- Jarduketarako osasun-programa bereziak diseinatzea (nutrizioa, hidratazioa, gemu-ihesa, UPPen prebentzioa...).
- Laguntzako osasun-adierazleen jarraipena egitea.
- Instalazioetako egoera higieniko eta sanitarioa kontrolatzea.

- Honako hauexen prestaketan, diseinuan, ezarpenean eta aplikazioan parte hartzea: osasun-arloko arretarako arauak, eskuliburuak, prozedurak, politikak, planak, programak eta proiektuak.
- Honako arlo hauetako erantzukizunak eta eginkizunak betetzea: laguntza, administrazioa, ikerketa, irakaskuntza eta osasun-arloko aholkularitzak zein kontsultoretzak.
- Ikerlanetarako aholkularitza ematea eta medikuntzarekin lotutako artikulua egitea.
- Euren jardueraren bitartez sortutako informazioa erregistratzea zentroko Zuzendaritzak adierazitako eta Kalitate Eskuliburuan zehaztutako formatuetan edota tresnetan.
- Oro har, aurretiaz zehaztu ez diren jarduera guztiak egitea, euren titulazioaren eta lanbidearen arabera.

Artatutako erabiltzaileei dagokienez:

- Erabiltzaileei banakako osasun-arreta ematea, prebenitzeko, sendatzeko eta errehabilitatzeko eta erabiltzaileen partaidetza zein integrazioa bultzatzeko.
- Erabiltzaileak artatzen dituzten mediku espezialistekin harremanetan eta koordinatuta egotea, baita egoiliarren familia-medikuekin ere.
- Behar diren azterketa medikoak, araketak eta diagnostikoak egitea eta kasuan-kasuan egokienak diren tratamenduak agintzea.
- Balioespen geriatriko integralerako eskalak (faktore fisikoak, psikikoak, funtzionalak...) eta historia kliniko osoa era antolatuan egitea.
- Behar denean, Larrialdietako Zerbitzura bideratzea eta, sarreretan, ospitaleko egonaldiaren jarraipena egitea.
- Hala badagokio, senideei erabiltzaileen osasun-egoerari buruzko informazioa ematea, baina, batez ere, gertaera adierazgarriak daudenean (erorikoak, eratorpenak...).
- Egoiliarrek eta haien giza zein osasun premiak zaintzea eta artatzea, baina, batez ere, zerbitzu horiek behar dituztenean.
- Erabiltzaileei arreta globala eta, behar denean, bizitzaren amaierako zainketak ematea.

Zentroko langileei dagokienez:

- Osasun-talde trebea bezain profesionala zuzentzea eta koordinatzea.
- Erizaintzak egindako ekintzak ikuskatzea eta kontrolatzea, euren zereginak laguntzarako zehaztutako arauen, tekniken eta prozeduren arabera bete ditzaten.
- Taldean bete-betean parte hartzea, diziplinarteko balioespenetan, haien ondorioz sortutako banakako arretarako planen prestaketan nahiz aurretiaz zehaztutako jarraipenetan.

Eskaintzen duguna

- Adinekoentzako laguntzaren sektoreko lana Bizkaian liderra den erakundean (gu ezagutzeko, Babesten Taldearen profila ikusi Linkedinen).
- Gure zentro guztiak Bizkaiko Foru Aldundiarekin daude itunduta.
- Lanaldi osoa, lanaldi partzialerako aukera. Goizeko ordutegia.
- Kontratu mugagabea.
- **Bizkaian ditugun zentroetan (Bilbo, Sestao, Muskiz, Basauri, Bermeo...).**

Gurekin lan egin nahi baduzu:

Bidali Zure CVa